



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritik, Gesaltza-Añanan, Añanako Gatz Arana Fundazioaren egoitzan, **2025eko EKAINAREN 3an**, 09:30ean, egingo den bilerarako dei egiten dizut. Sarbide telematikoa ere egongo da. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, le convoco a la reunión que se celebrará en Salinas de Añana, Fundación Valle Salado de Añana, a las 09:30 horas del día **3 DE JUNIO DE 2025**. Se dispondrá de acceso vía telemática, con el siguiente

GAI-ZERREDA**ORDEN DEL DÍA**

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

LEHENDAKARITZA**LEHENDAKARITZA**

Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuari (Deustu Fundazioa), Euskadin talentuaren erronkari helduko dion elkarlaneko gobernantza bat eraikitze proiektu bat garatzeko.

2

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Orkestra - Instituto Vasco de Competitividad (Fundación Deusto), para desarrollar un proyecto de construcción de una gobernanza colaborativa que aborde el reto del talento en Euskadi.

Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuari (Deustu Fundazioa), elkarlaneko gobernantza lurralde-lehiakortasuneko faktore gisa kokatzeko ikerketa-proiektu bat garatzeko.

3

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Orkestra - Instituto Vasco de Competitividad (Fundación Deusto), para desarrollar un proyecto de investigación para posicionar la gobernanza colaborativa como factor de competitividad territorial.



Erabaki-proposamena, zuzeneko dirulaguntza ematekoa Regions4 Sustainable Development elkarteari, Regions4SDGs ekimena garatzeko, eskualdeetako gobernuen gaitasunak indartuz 2030erako garapen jasangarriko helburuen ezarpena bizkortzeko.

4

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a Regions4 Sustainable Development, para desarrollar la iniciativa Regions4SDGs, mediante el fortalecimiento de las capacidades de los gobiernos regionales para acelerar la implementación de los objetivos de desarrollo sostenible para 2030.

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

Erabaki-proposamena, aldi baterako indartze-programa bat sortzeko dena. Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoan lan-harremana duten atzeritarrei beren edo besteren konturako hasierako lan-baimenak emateko eskumena hartzea.

5

Propuesta de Acuerdo para la creación de un programa temporal de refuerzo para la asunción de la competencia relativa a la materia de autorizaciones iniciales de trabajo por cuenta propia o ajena de las personas extranjeras cuya relación laboral se desarrolle en el País Vasco.

Erabaki-proposamena, Euskal Herriko Unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza bat ematekoa. Helburua: enplegu- eta inklusio-politiken ebaluazioaren arloko ikerketa, prestakuntza eta transferentziako unibertsitate-estrategia global bat aktibatzeke proiektua.

6

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, para el proyecto de activación de una estrategia universitaria global de investigación, formación y transferencia en materia de evaluación de políticas de empleo e inclusión.

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte-Sociedad Informática del Gobierno Vasco SA - EJIE SA sozietate publikoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari, informazio ez-finantzarioaren egoera-orria barne hartuta.

7

Propuesta de Acuerdo de aprobación de las cuentas anuales e informe de gestión, que incluye el estado de información no financiera, de la sociedad pública Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte-Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE), correspondiente al ejercicio 2024.

Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Itelazpi SA sozietate publikoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari.

8

Propuesta de Acuerdo de aprobación de las cuentas anuales e informe de gestión de la sociedad pública Itelazpi, S.A., correspondientes al ejercicio 2024.

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

9

Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno.

**INDUSTRIA,
ENERGETIKO
JASANGARRITASUNAREN SAILA****TRANSIZIO
ETA****DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD**

Dekretu-proiektua, Pasaia Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kendu eta beste bat izendatzeko dena.

10

Proyecto de Decreto de cese y designación de un vocal del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Pasaia.

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa KAIA (Klima Aldaketaren InpaktuA) izeneko sailen arteko koordinazio-mahaia eratzea, gauzatuko diren bost ingurumen-proiektu, eta Añanako Ekoetxea laster eraikiko dela.

11

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la constitución de una mesa de coordinación interdepartamental denominada KAIA (Klima Aldaketaren InpaktuA), y de cinco proyectos medioambientales que van a llevar a cabo, así como de la próxima construcción de la Ekoetxea de Añana.

Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, programa hau finantzatzeko, 2025eko ekitaldian: Indartu Programa, lehia-hobekuntza eta garapen ekonomikoa dakarren inbertsio produktiboa egiten duten enpresentzako dirulaguntzetarakoa, Ezkerralde Hedatua eta Euskal Autonomia Erkidegoko urteko batez bestekoa (% 7,4) gainditzen duen langabezia-tasa duten beste udalerrri batzuk sustatzeko. Indartu 2025 programa.

12

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000,00 de euros, para la financiación del programa por el que se convoca, para el ejercicio 2025, el Programa Indartu, de subvenciones a empresas que realicen inversión productiva que conlleve mejora competitiva y desarrollo económico, para impulso de la Zona Margen Izquierda ampliada y otros municipios, con una tasa de desempleo igual o superior a la media anual (7,4%) de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Programa Indartu 2025.

HEZKUNTZA SAILA**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**

Dekretu-proiektua. Honen bidez ezartzen dira Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak.

13

Proyecto de Decreto por el que se establece el currículo de las Enseñanzas Profesionales de Danza y el acceso a dichas enseñanzas.

**ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA
SAILA****DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
AGENDA URBANA**

Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa "Vivienda y suelo de euskadi, SA - Euskadiko etxebizitza eta lurra, SA" (Visesa) sozietatearen 2024 ekitaldiko urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari.

14

Propuesta de Acuerdo de aprobación de las cuentas anuales e informe de gestión de la sociedad Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.- Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (Visesa), correspondiente al ejercicio 2024.

**MUGIKORTASUN
JASANGARRIAREN SAILA****DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD
SOSTENIBLE**



Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Trenbide Azpiegituren Administratzailearekin (ADIF) hitzarmen bat izenpetzeko. Helburua: Astigarragako geltoki berriko eta haren sarbideetako obrak egiteko gomendioa.

15

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con el Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF), para la encomienda de la ejecución de las obras de la Nueva Estación de Astigarraga y sus accesos.

Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos SAU sozietate publikoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari (informazio ez-finantzarioaren egoera-orria eta emaitzen aplikazioa barne).

16

Propuesta de Acuerdo de aprobación de las cuentas anuales e informe de gestión de la sociedad pública Eusko Trenbideak/Ferrocarriles Vascos, S.A.U., que incluye el estado de información no financiera, y aplicación del resultado, correspondiente al ejercicio 2024.

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Erabaki-proposamena, Kontsumoko Arbitraje Elkargoetako kideei elkargo horien bileretara joatearen eta begi-ikuskapenak egitearen zerbitzuengatik eman beharreko kalte-ordainak aldatzeari eta kalte-ordain berriei buruzkoa.

17

Propuesta de Acuerdo sobre modificación y nuevas indemnizaciones por razón de servicio, a los miembros de los Colegios Arbitrales de Consumo, por la asistencia a las reuniones de dichos Colegios y por la realización de inspecciones oculares.

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa "Landa-eremuak garatzen laguntzeko Elkartea, Mendinet" tokiko ekintza-taldearekin sinatutako hitzarmenaren aldaketa-gehirria, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzeko.

18

Propuesta de Acuerdo de toma conocimiento de la Adenda de modificación del Convenio suscrito con el Grupo de Acción Local "Asociación para el Progreso del Desarrollo Rural Mendinet", para la aplicación de la estrategia de desarrollo local participativo.

JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y DERECHOS HUMANOS

Erabaki-proposamena, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei zuzeneko dirulaguntza ematekoa, 2025eko lehenengo hiru hilabeteetan jarraipena emateko proiektu pilotu honi: herritarrek eztabaidak konpontzeko bitarteko egokiak aukera eta erabil ditzaten sustatu eta zabaltzekoari.

19

Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a los Ilustres Colegios de la Abogacía de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, para dar continuidad durante el primer trimestre del 2025, al proyecto piloto para divulgar y potenciar la elección y empleo por la ciudadanía de los diversos medios adecuados de solución de controversias existentes.

IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

LEGEBILTZAR-EKIMENAK

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 30ean. En Vitoria-Gasteiz, 30 de mayo de 2025.

IZPTA./Fdo.: UBARRECHENA CID, MARIA.
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

LEHENDAKARIAREN BAIMENA, GOBERNU KONTSEILUAREN 2025eko EKAINAREN 3ko BILERA TELEMATIKOKI EGITEKO

2022ko maiatzaren 24an, Gobernu Kontseiluak Erabaki bat hartu zuen, Gobernu Kontseiluaren bilera telematikoak puntualki egiteko jarraibideak onartzen dituen, eta erabaki horren arabera, beharrezkoa da lehendakariak, berariaz eta arrazoituta, bilera horiek telematikoki egitea baimentzea.

Osasun sailburuak, egindako bidaia instituzionala dela eta, Alberto Martínez Ruiz, ekainaren 3an, ezin izango da Galtza Añanaren egingo den Gobernu Kontseiluaren bilerara fisikoki bertaratu.

Aztergaien zerrenda ohikoa dela ikusita eta ebatzi beharreko gaiak kontuan hartuta, egokia da bilera telematikoak egitea, arestian aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakian adierazitako baliabide teknikoak erabiliz.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek aukera ematen dute, bideokonferentzia bidez, irudia eta soinua bi noranzkoetan eta aldi berean komunikatzeko; eta hortaz, geografikoki urruti dauden bi pertsonaren edo pertsona-talderen arteko denbora errealeko ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko. Halaber, bermatu egiten dute eztabaidetan eta hausnarketetan askatasunez parte hartzea.

Baimen honetan adierazitako baliabide teknikoek modu egokian bermatzen dituzte, halaber, parte-hartzaileen identitatea eta segurtasuna, kanpoko interferentziarik ez egotea, esku hartzeko askatasuna eta eztabaiden izaera sekretua edo erreserbatua.

AUTORIZACIÓN DEL LEHENDAKARI PARA QUE LA REUNIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO DE 3 DE JUNIO DE 2025 SE CELEBRE DE FORMA TELEMÁTICA

Con fecha de 24 de mayo de 2022 el Consejo de Gobierno adoptó un Acuerdo por el que se aprueban las directrices para la celebración puntual de reuniones telemáticas de Consejo de Gobierno, siendo necesario conforme al mismo que el Lehendakari autorice, de forma expresa y motivada, la celebración de dichas reuniones de forma telemática.

Con motivo de un viaje institucional, el Consejero de Salud, D. Alberto Martínez Ruiz, no podrá asistir físicamente a la reunión del Consejo de Gobierno que se celebrará el 3 de junio en Salinas de Añana.

Dado el carácter ordinario del orden del día, y a la vista de los asuntos a resolver, procede realizar una reunión telemática utilizando los medios técnicos que se indican en el Acuerdo de Consejo de Gobierno antes referido.

Los medios técnicos indicados en esta autorización permiten, mediante videoconferencia, la comunicación bidireccional y simultánea de imagen y sonido y, por tanto, la interacción visual, auditiva y oral en tiempo real entre dos personas o grupos de personas geográficamente alejadas, garantizando la libre participación en los debates y deliberaciones.

Los medios técnicos indicados en esta autorización garantizan también de forma adecuada la identidad y seguridad de las personas participantes, la ausencia de interferencias externas, la libertad de intervención y el carácter secreto o reservado de los debates.



Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
El Lehendakari del Gobierno Vasco

Hori horrela izanik,

En su virtud,

HONAKOAK BAIMENTZEN DITUT

AUTORIZO

1.- Gobernu Kontseiluak 2025eko ekainaren 3an egingo duen bilera telematikoki egiteko baimena ematen dut, honako Baimen honetan adierazita dauden baldintzetan.

1.- Que la reunión del Consejo de Gobierno de 3 de junio de 2025, se celebre de forma telemática, en los términos expresados en la presente Autorización.

2.- Telematikoki konektatuko diren Gobernu Kontseiluko kideek ZOOM plataforma digitala erabili beharko dute; eta, horretarako, esteka honetan sartu beharko dute:

<https://euskadi.zoom.us/j/99165009794>

2.- Que las y los miembros del Consejo de Gobierno que se conecten telemáticamente, deberán de utilizar la plataforma digital ZOOM, accediendo al siguiente enlace:

<https://euskadi.zoom.us/j/99165009794>

3.- Honako baimen hau bilkura-deialdiari eransteko baimena ematen dut, bilerari dagokion gaitzerrendarekin batera.

3.- Que la presente autorización se incorpore a la convocatoria de la sesión junto con el orden del día.

Vitoria-Gasteizen, 2025ko maiatzaren 29an.

IMANOL PRADALES GIL.

Lehendakaria.